

Nafarroako monjeak

El monacato en Euskal Herria nació por etapas sucesivas y conoció desarrollos de mayor o menor entidad, según Territorios. La historia de los Monasterios navarros fue autóctona y se irradió en su contorno vasco y riojano. Particularmente Alava y Gipuzkoa se beneficiaron de ello.

Orain eta ondoko hilabeteetan euskal Lurraldeen arteko ezberdintasun horiek aurkeztu nahi dizkiot irakurleari, betiere aintzakotzat XVIII-XIX. mende tartekoa hartuz, hau da, Esklaustrazio aurreko historia. Nafarroari emango diogu lehenengo lekua.

IX-XII. mende emankorrak

Lehenengo Monasterioak Iruñeko Erreinuaren sortzera zihoan garaietakoak ditugu. Monasterio hauek Penintsulatik eta Ernazimentu karolingiarretik jasotako iradokizun eliz kulturalen eraginez jaio, hazi eta ugaltu ziren (Usun eta Igal Zaraitzuko sarreran eta barnean, Fuenfría eta Urdaspal Erronkariko atarian eta bailaran, eta batez ere Leire). Gaurko Nafarroako mugen barruan zeuden horien ondoan bada, ordea, beste zer-bait gogoratzekorik: Iruñeko erreinuarekin hertsiki lotuta zegoen orduan Aragoiko beste zenbait Monasterio ere, berauen arteko handiena Siresa zela (Echo Ibarrean).

Hurrengo mendea ez zen gertatu batere antzua: Antso Gartzes erregeak (905-925) Errioxa eskuratu ahal izan zuen (923-924), eta lurraldea irabazteak Erreinuaren oinarri sozial, erlijioso eta kulturalak zabaltzea ekarri zuen, eta erret Gorteko bizimodua hiritartu egin zen, egoitza Naairan jarztean.

Lurralde irabazi berriak, Monasterio berrien

premia zuen, hedatutako Erreinuaren eskualdeak antolatzeke, ekonomia indartu eta kristau bizitza kulturaz hornitzeko. Horra, bada, nola jaioko diren Errioxako Monasterio handiak, Pirinioaldeko monasterio-gune hari X. mendean Errioxako beste hau gehituz, batzuetan lehendik zegoena indarberrituta (Donemiliaga) eta bestetan oinarri berrietatik sortuta (Albelda, 923). Ekonomia eta kultura bulartsu agertu ziren bi Monasterio hauetan, esate baterako Albeldak 950. urte inguruan 200en bat monje zituen, eta scriptorium azkarra (975); bestalde, eragin gaztelaua ere nabaria zuen, hain zuzen Donemiliagako Monasterioari zor dizkiogu *Glosa Donemiliagatarrak*, gaztelaniatzko eta euskarazko lehen esaldi idatziak jaso zituzten sermoi-ohar ezagunak (c. 950).

Errioxako Monasterioak monje eta liburutan "nafartzen" ari ziren bitartean, Errege nafarrek gaur egungo lurralde nafarrean bertan ere indarberritu zituzten Monasterioak (Leireko eliza sagaratu: 1057, 1098), eta beste zenbait sortu eta lagundu ere bai (Iratxe), apurka-apurka San Benitoren Erregela ezarriz (*beneditartzea*). Horrela jarri zitzaizkion oinarriak Aro Garaikidea arte ezagutu zen Nafarroako Monasterio-sare beneditarrari, erreforma zistertarra tartean zela (adibidez, Irantzuz: 1176) eta krisi material zailak gaindituta (XIV. XV. mendeak).



Aldi bertsuan, San Agustinen Erregelak ere tokirik izan zuen Nafarroan (XII. mendean), Iruñean lehenengo eta Orreagan gero (1135), eta Erregela berarekin sortu zuen Antso Jakitunak Premontretarren Urdazubiko Monasterioa (1172/1182).

Tenplario eta sanjoandarrak (XII-XIII)

Tenplarioek, egia esan, indar handia baina bizialdi laburra izan zuten Mendebaldeko Elizan (1118-1313). Nafarroan hainbat dohain jaso zuten Koroa eta nobleziagandik, eta bereziki Gares-ko "auzo zaharra" (1146). Dena den, monje-soldadu hauen Nafarroako ondarea sanjoandarrena baino askoz apalagoa izan zen, gerrarako baino erromes-bideak zaindu eta Lur Santuei laguntzeko erabili zena. Erregeek eta Aita Santuak Ordena desegin zutenean, tenplarioen Nafarroako ondasunak sanjoandarren jabetzara pasatu ziren.

Aipatutako sanjoandar hauek aparteko aurkezpena behar dute. "Jesusalengo San Joaneko Ospitaltzainei" deitzen diegu "sanjoandarrak" (*sanjuanistas*, gaztelaniaz: gaur egun "Maltako Ordena" legez ezagunak). Palestinako Santutegiak zaindu eta laguntzea, harako erromesei bideetan segurtasuna bermatzea eta gaixoei ospitale- eta ostatu-zerbitzuak eskaintzea ziren Ordenaren betekizun behinenak, premiazkoa ikusten zenean Gurutzadetan ere esku hartuz. Europako Mendebaldean etxe eta ospitale ugari izan zuten sanjoandarrek.

Ospitaltzain hauen Ordenak garapen handia ezagutu zuen Nafarroako Erreinuari; XII-XIII. mendeetan izan zuten sanjoandarrek beren loraldi handia, Zangoza (1131) eta Zizur Txikian hasi (1135) eta Santiago Bide osoan, Gares eta Liza-

rran eliza-etxe handiak zituztela. Sanjoandarren Engomendek (*encomienda* deitzen ziren) eta bildutako ondasunek (lur, ermita, eliza eta abar) Erreinuako geografia gehiena besarkatu zuten, gune nagusiak Santiago Bidean eta Erriberan zituztela. Ospitaltzainen Ordena honek XIX. mendea arte iraun zuen Nafarroan, eta desamortizazio-unean (1835) beharbada Nafarroako Ordenarik aberatsena zen.

Erreinuaren zutabe ere izanik

Monjeen mundua, berez Erreinuako egitura eliztarra izan arren, gainerako Erakunde zibilekin batasun bat osatuz ageri zaigu. Ezin da ahaztu, adibidez, Erregimen Zaharreko nafar Gortetan (Parlamentuan, nahiago bada) Monasterioek beren lekua zutela: Gotzain eta Kabildo-buruekin batera (Iruñea, Tutera, Orrega), Gorteetako eliztarren "Estatu" Leire, Iratxe, La Oliva, Irantzu, Fitero, Montearagón eta Urdazubiko Abadeek eta sanjoandarren Priore Nagusiak osatzen zuten.

Erakundeetatik Erreinuako lurralde-antolakuntza eta ekonomiara baldin bagatoz, gogoan hartzekoa da, Monasterio handi bakoitza ez zela toki jakin bateko etxalde bat bakarrik; alderantziz, halako Monasterioek ermitak, eliztxoak, agian herriren bat eta lurrak eta ondasun higiezin asko izaten zituzten Erreinu osoan zehar, eta erbestean ere. Harritzekoa gertatzen zaigu orain horren guztiaren berri ematen duten mapak ikustea bakarrik.

Monasterio-sare hau dena XIX. mendean ezabatu zen (1833-1840), ondoren bestelako historia bat hasteko.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrik: 610-273580